


Maiatzaren 9a, Europako Eguna

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek (% 63) konfiantza dute Europar Batasunean. Portzentaje hori Euskadin 30 urtetik gorako biztanleen artean jasotakoa baino handiagoa da (% 56).

Europar Batasunean izandako konfiantza nabarmen handitu da azken urteetan: 2010ean konfiantza zuten 30 urtetik beherako gazteak % 47 ziren (geroago, krisialdi ekonomikoa zela-eta, Europako erakundeek ezarritako neurrien eraginez behera egin zuten konfiantza zutenen portzentajea) eta 2019an, aldiz, % 63.

Europar Batasunean konfiantza duten Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen portzentajearen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteen argazkiak 23, 2019koa)

Euskadiko emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan erakusten dute beraien konfiantza EBn (% 66 % eta % 60, hurrenez hurren), eta 25 urtetik beherakoek ere 25 eta 29 urte bitartekoek baino konfiantza handixeagoa dutela esan dezakegu (lehenengo taldean % 64 eta bigarrenean % 61).

Dena den, kontuan izan behar da datu hauek COVID19k sortutako pandemiaren aurrekoak direla, beraz, ez dakigu zelako eragina izan duten, konfiantzari dagokionez, Europako erakundeek ezarritako neurriek.

Aipatutako datuak "[Gazteen argazkiak 23](#)" izeneko txostenean kontsulta daitezke. Txosten hori eskuragarri dago Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean.